Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 17a, asteartea — 137 — Martes, a 17 de julio de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

*Ordenantza. Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru laguntzak nola eman eta arautzeko oinarriak arautzen dituena. Behin betiko onarpena.*

Donostiako Udalbatzak, 2018ko ekainaren 21ean egindako osoko bilkuran, ondorengoa erabaki du:

Donostiako Udalbatzak, 2018ko urtarrilaren 25ean egindako bileran, Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizi- tzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru laguntzak nola eman arautzeko oinarriak arautzen dituen ordenantzari hasierako onespena ematea erabaki du.

2018ko otsailaren 2ko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 24. zenbakian argitaratu zen iragarkiaren bitartez adierazi zen jendaurrera ateratzen zela espedientea eta interesdun pertsonek berau aztertu ahal izango zutela Donostiako Udalaren Idazkaritza Nagusiko bulegoetan eta iragarki oholean, astelehenetik ostiralera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera laneguneko epean.

Adierazitako epean Udaleko Erregistro Orokorrean iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango ziren.

2018ko martxoaren 21an jaso da Miguel Del Valle Sol Jaunak, LAB Sindikatuaren izenean, aurkeztu duen idatzia, Ordenantzari egiten dizkion alegazioak azaltzeko.

Alegazioan, aipaturiko ordenantzan, diru-laguntzak jasotzeko, Gipuzkoako Eraikuntzako Hitzarmenaren betebeharra derrigorrezkoa izatea eskatzen du.

2018ko apirilaren 23an, Donostiako Etxegintzako Zuzendariak egindako txostenean alegazioa ez onartzea proposatzen da, bertan adierazten diren arrazoien arabera.

Horiek hala direla, hauxe da Udalbatzari onartzea proposatzen diogun

ERABAKIA

*Lehena.* Ez onartzea Miguel Del Valle Sol Jaunak, LAB Sindikatuaren izenean, 2018ko martxoaren 21an Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru laguntzak nola eman arautzeko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onespenari aurkeztutako alegazioa.

*Bigarrena.* Behin betiko onartzea Donostiako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko diru laguntzak nola eman arautzeko oinarriak arautzen dituen ordenantza.

Donostia, 2018ko uztailaren 2a.—Iñaki Txintxurreta Perdiguero, behin-behineko idazkaria. (4829)

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

*Aprobación definitiva de ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.*

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 21 de junio de 2018, ha acordado de lo siguiente:

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 25 de enero de 2018, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.

En el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 24 de 2 de febrero de 2018, se publicó anuncio en el que se indicaba el sometimiento a información pública el expediente, a cuyos efectos las personas interesadas podían consultar el mismo en las oficinas de la Secretaría General del Ayuntamiento de San Sebastián y tablón de edictos, de lunes a viernes, durante el plazo de 30 días hábiles, contados a partir del siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Durante el indicado plazo podían presentarse en el Registro del Ayuntamiento las reclamaciones y sugerencias que se tengan por conveniente.

Consta presentada en fecha 21 de marzo de 2018, un escrito presentado por D. Miguel Del Valle Sol, en representación de LAB Sindikatua, por el que presenta alegaciones a la citada Ordenanza.

En la alegación, solicita que se incluya en dicha ordenanza la obligatoriedad de aplicar el convenio de Construcción de Gipuzkoa para otorgar dichas subvenciones.

En fecha 23 de abril de 2018, se ha emitido informe por el Director-Gerente de Donostiako Etxegintza, en el que se se propone la desestimación de la alegación por los motivos que se indican en dicho informe.

Por todo lo expuesto se eleva al Excelentísimo Ayuntamiento Pleno para su aprobación la siguiente propuesta de

ACUERDO

*Primero.* Desestimar la alegación presentada en fecha 21 de marzo de 2018 por D. Miguel Del Valle Sol, en representación de LAB Sindikatua a la aprobación inicial de la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.

*Segundo.* Aprobar definitivamente la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.

San Sebastián, a 2 de julio de 2018.—El secretario interino, Iñaki Txintxurreta Perdiguero. (4829)

EK\CV GAO-I-2018-04829

*Ordenantza, Donostiako etxebizitzak eta bizitegi eraikinak zaharberritzeko eta irisgarritasuna hobetzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzekoa.*

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluak etxebizitza gaietan Donostiako Udalari egotzitako eskumenaren esparruan, eta bere lurralde eremuaren baitako diru laguntzekin lotuta dituen eskumenen esparruan, Donostiako Udalak diru laguntzak eman ditu, aspaldion, etxebizitzak eta bizitegi eraikinak zaharberritzeko.

Zehazki, diru laguntza horiek, egun, Donostiako etxebizitzak eta bizitegi eraikinak zaharberritzeko diru laguntzak emateko Ordenantza arautzailea oinarri ematen ditu udalak. Behin betiko onartu zituen Udalbatzak 2014ko apirilaren 30eko osoko bilkuran, eta urte bereko maiatzaren 9an GAOk 86. zenbakian argitaratu. Donostiako Etxegintza udal enpresa erakunde publikoak izapidetzen ditu laguntzok.

Laguntza horien kudeaketari esker izandako eskarmentua eta egun indarrean den Ordenantzaren edukia justifikatu zuten baldintza batzuen aldaketa direla tarteko, beharrezkotzat jo dugu laguntza horiek birbideratzea aurreko helburuak hobetzera bideratzeko.

Diruz lagundu beharreko lan jakinekin du zerikusia lehenak. Gure ustez, birgaitzea sustatzerakoan, ahaleginak bideratu behar dira adinekoen etxebizitzak erabiltzearekin zuzenean loturiko alderdietara, batez ere, irisgarritasunera. Hauteman dugunaren arabera, aurreko ordenantzaren arabera emandako laguntza asko (% 80) fatxadak eta estalkiak hobeto isolatzeko erabili dituzte, bai eta eraikinen ikuskapen teknikoen ondorioz egin beharreko lanetarako. Esku hartze horiek oso garestiak direnez gero, erabilgarri dagoen diru laguntza lerroa berehala amaitzen da, gainerako lerroak dirurik gabe geratzen direla.

Bigarrenik, lurralde banaketan arazo bat hauteman dugu, ordenantzak hiri osoa modu berean tratatzen duelako, eta ez duelako uzten aukerarik etorkizunean lehentasunak ezartzeko aldeen edo auzoen arabera, baldin eta horiek behar bereziak badituzte ordenantzak berak lortu nahi dituen helburuen arabera.

Azkenik, prozedurazko alderdiei lotutako arazoak ere hauteman ditugu, adibidez, beti egotea zabalik eskabidea aurkezteko aukera. Horren ondorioz, diru laguntza eskuratu dezaketen baino eskabide gehiago izapidetzen dira.

Arautze onaren printzipioak betetzen ditu ordenantza honek; hortaz, premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioetara egokitu da.

Hala, honako ordenantza hau idaztean, Diru Laguntzen Lege Orokorraren eskakizunak kontuan izan dira. Gainera, Donostiako Etxegintza udal enpresa erakunde publikoa proposatzen dugu diru laguntzak izapidetzen laguntzeko erakundetzat, erakunde hori delako Donostiako Udalaren toki administrazioan etxebizitzari buruzko gai guztietan espezializaturiko organoa, dela sustatzeko dela birgaitzeko.

Zuzenean ordaintzen ditu ordenantza honetan arauturiko laguntzak Donostiako Udaleko Kontuhartzailetzak, horrek segurtasun juridiko eta kontrol handiagoak dakartzalako.

Batez ere, irisgarritasuneko lanak sustatzen ditu ordenantza honek, hil edo biziko garrantzitzat jotako beste batzuk diruz laguntzeari utzi gabe.

Adierazi beharrekoa da ezen Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluak xedaturikoaren arabera, honako Ordenantza honek araugintza onaren printzipioak betetzen dituela

*Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad y rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas de San Sebastián.*

En el marco de la competencia que en materia de vivienda le atribuye el artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, y de sus competencias en materia de subvenciones dentro de su ámbito territorial, el Ayuntamiento de San Sebastián ha venido concediendo subvenciones para la rehabilitación de viviendas y edificios residenciales.

En concreto dichas subvenciones, en la actualidad, vienen siendo concedidas en virtud de la «Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas de San Sebastián», fue aprobada definitivamente en sesión plenaria de 30 de abril de 2014, y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 86 de 9 de mayo de 2014 y su tramitación viene siendo gestionada por parte municipal a través de la Entidad Pública Empresarial de Vivienda/Donostiako Etxegintza.

La experiencia adquirida en la gestión de éstas ayudas y el cambio de algunas de las circunstancias que justificaron el contenido de las Ordenanzas actualmente en vigor, han llevado a considerar necesario una reorientación de estas ayudas enfocándolas a la mejora de los objetivos anteriores.

El primero de ellos guarda relación con las concretas obras subvencionables. Se considera que el fomento de la rehabilitación debe concentrar esfuerzos en aspectos directamente relacionados con el uso de las viviendas por personas mayores, especialmente en materia de accesibilidad. Con la ordenanza anterior, se ha detectado que una parte muy significativa de las ayudas concedidas (80 %) se han concentrado en aislamiento de fachadas y cubiertas, así como en obras requeridas por las ITEs. Estas intervenciones, por su elevado coste hacen que la línea subvencional disponible se agote rápidamente, dejando sin cobertura las demás líneas.

En segundo lugar, se ha detectado un problema de distribución territorial, en cuanto que la Ordenanza actual trata toda la ciudad por igual, sin posibilidad alguna de articular en el futuro prioridades por zonas o barrios que presenten especiales necesidades enmarcadas dentro de los objetivos que persigue la propia ordenanza.

Por último se han detectado problemas vinculados a aspectos procedimentales, como la apertura permanente de la posibilidad de solicitud que lleva a la tramitación de un número de solicitudes superior a la que pueden llegar a obtener subvención.

La presente Ordenanza se ajusta a los principios de buena regulación y por ello se ha adecuado a los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

Así, en la redacción de la presente ordenanza se han contemplado los requisitos de la Ley General de Subvenciones. Así mismo, se propone a la Entidad Pública Empresarial de Vivienda Donostiako Etxegintza como entidad colaboradora en la tramitación de la subvenciones, por ser dicha entidad el órgano especializado en la administración local del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián en todo lo relativo a la vivienda, tanto su promoción como su rehabilitación.

El pago de las subvenciones contempladas en la presente ordenanza se abona de forma directa por la intervención municipal del propio Ayuntamiento, lo que supone una mayor seguridad jurídica y un mayor control.

Esta ordenanza fomenta especialmente las obras conducentes a la accesibilidad sin dejar de subvencionar otras que se consideran de vital importancia.

Debe indicarse, por imperativo de lo establecido en el artículo 129 punto 1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que la presente Ordenanza se ajusta a los principios de

EK\CV GAO-I-2018-04829

eta, hortaz, premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioetara egokitzen saiatu dela. Beharraren kanona gainditzen du ordenantza berri honek, Donostiako Udalaren arautze ekimen honek justifikazio baititu sarrera honetan bertan adierazitako interes orokorreko zioak, lortu nahi dituen helburuak argiro identifikatuta daudelako, horiek lortzea bermatzeko araugintza tresna egokia delako eta, gainera, proportzionaltasun printzipioa errespetatzen duelako.

Helburu horien guztien testuinguruan, helburu orokorra izanik bizitegi eraikinen eta etxebizitzen irisgarritasuna eta haiek zaharberritzea sustatzea, honako Ordenantza hau 17 artikulutan dago banatuta. Eta artikulu horiek, era berean, hiru Kapitulutan (Xedapen Orokorrak, Diruz Laguntzeko Moduko Jardunak eta Onuradunak eta Laguntza Emateko Prozedura), bi Xedapen Gehigarritan, bi Xedapen Iragankorretan, Xedapen Indargabetzaile batean daude sailkatuta.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Donostiako etxebizitzetan eta bizitegi eraikinetan zaharberritze lanak eta irisgarritasuna sustatzekoak egiteko Donostiako Udalak ematen dituen diru laguntzei aplikatzeko oinarri arautzaileak ebaztea da honako ordenantza honen xedea da.

Zaharberritze lanetarako diru laguntzatzat joko dira, hain zuzen, honako ordenantza honetako 6. artikuluan diruz laguntzeko modukotzat jotako lanak gauzatzeko funts publikoetako zuzeneko ordainik gabeko diru erabilera guztiak.

Oinarri horien xedea izango da, halaber, etxebizitza alokairuaren merkatuan, etxebizitza hutsa merkatukoak baino prezio merkeagoetan jartzea sustatuko duten diru laguntzak arautzea eta, azken batean, eta zeharka bada ere, eraikuntzaren sektorean enplegua sortzea edo sustatzea.

Ordenantza honen ondorioetarako, «etxebizitza hutsa» dagoela ulertuko da, baldin eta diru laguntza jasotzeko eskaera aurkeztu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, Biztanleen Udal Erroldan inor jasota ez badago etxebizitza horretan.

*2. artikulua. Erakunde laguntzailea.*

Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2. artikuluan xedaturikoaz bat eginda, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak Erakunde Laguntzaile izaera izango du honako ordenantza honetan jasotako diru laguntzen kudeaketari begira; betiere, Udalaren eta aipatutako erakundearen arteko Lankidetza Hitzarmenean finkatuko diren modu eta baldintzetan.

Dagokion lizentzia lortu ondoren, hala bada, eta ordenantza honetan oinarritutako diru laguntza lortze aldera, Donostiako Etxegintzak «leihatila bakarra» moduan jardungo du eskaera egiteko, eta dagozkion agiriak jasotzeko eta izapidetzeko.

*3. artikulua. Araubide juridikoa.*

Honako ordenantza honen xede diren diru laguntzak, hain zuzen, bertan xedatutakoaren arabera ez ezik, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta hura garatzeko Araudiaren (887/2006 Errege Dekretu bidez onartutakoa) arabera ere arautuko dira.

Eta horien osagarri, administrazio zuzenbideko gainerako legeak aplikatuko dira, edo horiek izan ezean, zuzenbide pribatukoak.

buena regulación y por ello ha tratado de adecuarse a los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, y eficiencia. La nueva Ordenanza supera el canon de necesidad pues esta iniciativa normativa del Ayuntamiento de San Sebastián está justificada por las razones de interés general expuestas en este preámbulo, identifican claramente los fines perseguidos, es el instrumento normativo adecuado para garantizar su consecución y también respeta el principio de proporcionalidad.

En el contexto de estos objetivos, dentro del objetivo general de impulsar la accesibilidad y la rehabilitación de los edificios residenciales y viviendas, la presente Ordenanza se estructura en 17 artículos ordenados en tres Capítulos dedicados a Disposiciones Generales, Actuaciones Subvencionables y Beneficiarios y Procedimiento de concesión, dos Disposiciones Adicionales, una Disposición Transitoria y una Disposición Derogatoria.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de la presente Ordenanza establecer las bases reguladoras de aplicación a la concesión de las subvenciones que el Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián conceda para fomentar las obras de accesibilidad y la rehabilitación en los edificios residenciales y viviendas del municipio de San Sebastián.

Se entenderán por subvención para obras de rehabilitación la disposición dineraria de fondos públicos sin contraprestación directa para la realización de las obras calificadas como subvencionables en el artículo 6.º de la presente Ordenanza.

Así mismo, dichas bases tendrán por objeto la regulación de subvenciones para el fomento de la puesta a disposición en el mercado de alquiler de vivienda vacía a precios más bajos que los del mercado y, en última instancia, y de forma indirecta, el impulso de la creación y/o mantenimiento del empleo en el sector de la construcción.

A efectos de esta Ordenanza, se entiende por «vivienda vacía» aquélla en la que no conste en el padrón municipal de habitantes persona alguna inscrita con una antelación mínima de 3 meses a la presentación de la solicitud de ayudas de obras a subvencionar.

*Artículo 2. Entidad colaboradora.*

De conformidad con lo previsto en el artículo 12.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones, la Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza, tendrá la consideración de Entidad colaboradora para la gestión de las subvenciones contempladas en la presente Ordenanza en los términos a fijar en el correspondiente convenio de colaboración entre el Ayuntamiento y la citada Entidad.

Obtenida la licencia correspondiente, en su caso y a los efectos de la obtención de la subvención en base a esta Ordenanza, Donostiako Etxegintza actuará «como ventanilla única» tanto para la realización de la solicitud, como para la recogida y tramitación de la documentación correspondiente.

*Artículo 3. Régimen jurídico.*

Las subvenciones objeto de la presente Ordenanza se regularán además de por lo dispuesto en la misma, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones y su reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006.

Supletoriamente, se aplicarán las restantes leyes de derecho administrativo.

EK\CV GAO-I-2018-04829

## II. KAPITULUA

## DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO JARDUERAK ETA ONURADUNAK

*4. artikulua. Eremua.*

Honako diru laguntza hauen araubidea soil-soilik aplikatuko da bizitegi eraikinetan egingo diren esku hartzeetan. Ondorioz, familia bakarreko edo biko etxebizitzek ezin izango dituzte laguntza hauek jaso. Etxebizitza atxikiek laguntza jasotzeko aukera izango dute, baldin eta jabekideen komunitate bat eratzen badute, gutxienez hiru etxe bizitzaz osatua, bizitza bakoitzak 150 m$^2$ eraiki baino gutxiago badu eta 10 urte baino zaharragoak badira.

*5. artikulua. Eraikitzeko eta lanak egiteko baldintzak.*

1. Diruz laguntzeko moduko lanak egin beharreko eraikinek honako baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

a) Donostiako udalerri barnean egotea.

b) 10 urtetik gorako eraikinak izatea, ez egotea hondatuta eta ez izatea lanak egiteko udal baimena galarazteko moduko hirigintza erasanik.

Dena den, honako ordenantza honetako 6. artikuluko 1.b) ataleko 2. puntuan xedatutako laguntzei dagokienean, eraikinak 10 urte baino gehiago izateko baldintzatik salbuetsita geratuko dira, hain justu, mugikortasun mugatua duten pertsonak bizi diren bizitegi higiezinak, baldin eta etxebizitza horretan bizitzen hasiz gero badaude egoera horretan, edo 65 urtetik gorako pertsonak bizi diren bizitegi higiezinak. Mugikortasun mugatuko pertsonatzat joko dira, hain zuzen, ibiltzeko, eskailerak igotzeko edo oztopo arkitektonikoak gainditzeko ezintasun iraunkorra duten pertsonak, protesiak edo aulki gurpilduna erabiltzea beharrezkoa duten ala ez kontuan izan gabe.

c) Eraikinen 2/3 bizitegi erabilerara bideratuta egotea, eta, gutxienez, hiru etxebizitza izatea.

2. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa kontratu txikiarena baino handiagoa baldin bada obra gauzatzearen kosturako, eta hornigaiak ekartzeko edo aholkularitzako nahiz laguntza teknikorako enpresen zerbitzuetarako, erakunde onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste hainbeste hornitzaileri –eta horiek jasota geratuko dira justifikatzeko frogagirietan–, salbu eta diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan ez bada hornidura edo zerbitzua egingo duten aski erakunderik. Jasotako eskaintzak balioztatzean, efizientzia eta ekonomia erabiliko dira printzipiotzat, oroitidazki batean berariaz oinarritu beharko dutelarik zergatik aukeratu duten haietako bat, ekonomia aldetik abantailatsuena hautatu ez badute.

*6. artikulua. Diruz laguntzeko moduko lanak.*

1. Diruz lagundu daitezkeen obrak honako hauek izango dira:

a) Elementu komunetan egindakoak.

1.a.1) Irisgarritasuna: igogailuak, maldak eta plataformak instalatzea halakorik ez duten eraikinetan. Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), gehienez ere 20.000 €. Lehentasunez birgaitu beharrekotzat jotako eraikinek edo lehentasunez birgaitu beharreko aldeetan daudenek, urtean, diru laguntza deialdi bakoitzean Udalak zehaztu dezakeenaren arabera, diruz laguntzeko moduko gastuaren % 10 gehiago jasoko dute, diru laguntza gehigarri moduan, BEZik gabe, gehienez ere 10.000 euro arte.

1.a.2) Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak eskatutako lanak, Ikuskaritzak eskatzen dituen lanak berehala, presa handiz edo presaz egin behar izanez gero, eta betiere teknikari kualifikatu batek sinatzen baldin badu, eta aipatu txosten tekniko horretan ezarritako epean gauzatuz gero: diruz laguntzeko moduko gas-

## CAPÍTULO II

## ACTUACIONES SUBVENCIONABLES Y BENEFICIARIOS

*Artículo 4. Ámbito.*

El régimen de las presentes subvenciones será de aplicación exclusivamente para intervenciones en edificios residenciales, quedando en todo caso excluidas de estas ayudas las villas unifamiliares y bifamiliares. Las viviendas adosadas podrán ser objeto de subvención siempre que constituyan una comunidad de propietarios y con un número mínimo de 3 viviendas, cuya superficie individual no supere los 150 m$^2$ construidos y su antigüedad sea superior a 10 años.

*Artículo 5. Requisitos de la edificación y de ejecución de la obra.*

1. Los edificios cuyas obras son objeto de subvención, deberán cumplir todos y cada uno de los siguientes requisitos:

a) Estar situado en el término municipal de San Sebastián.

b) Construcción con una antigüedad superior a 10 años, no estar declarado en ruina y que no tengan una afección urbanística que impida la autorización municipal para realizar obras.

Queda exceptuado del requisito de antigüedad de 10 años del edificio, para las ayudas contempladas en el artículo 6.1.b) 2. de la presente Ordenanza, aquellos inmuebles residenciales en los que habiten personas de movilidad reducida a quienes les haya sobrevenido esta situación con posterioridad a la ocupación de la vivienda o habiten personas mayores de 65 años. Se entenderán por personas con movilidad reducida a aquellas con dificultad permanente para andar, subir escaleras o salvar barreras arquitectónicas, se precise o no el uso de prótesis o de sillas de ruedas.

c) Ser edificios destinados en sus 2/3 partes al menos a uso residencial y disponer como mínimo de 3 viviendas.

2. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías del contrato menor en el supuesto de coste de ejecución por obra y en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, con carácter previo a la perfección del contrato se deberán solicitar como mínimo 3 ofertas de diferentes proveedores, de las que se dejará constancia en la documentación justificativa, salvo que, por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de empresas que lo suministren o lo realicen. La elección entre las ofertas recibidas se llevará a cabo conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

*Artículo 6. Obras subvencionables.*

1. Las obras objeto de subvención serán:

a) Las relativas a elementos comunes.

1.a.1) Accesibilidad: instalación de ascensores, rampas y plataformas en inmuebles que carezcan de dichas instalaciones. Se subvencionará el 20 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 20.000 €. Los edificios declarados como de necesidad preferente de rehabilitación o comprendidos dentro de las zonas de necesidad preferente de rehabilitación, que anualmente, en cada convocatoria de subvenciones, puedan fijarse por el Ayuntamiento, tendrán una subvención adicional del 10 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 10.000 €.

1.a.2) Obras requeridas por la Inspección Técnica de Edificios, siempre que las obras requeridas sean inmediatas, muy urgentes o urgentes, firmado por personal técnico cualificado y se lleven a cabo de conformidad al plazo establecido en dicho informe técnico: Se subvencionará el 20 % del gasto subvencio-

EK\CV GAO-I-2018-04829

tuaren % 20ko laguntza izango dute (BEZa kanpo), eta gehienez ere 10.000 €. Nolanahi ere den, kanpoan geratzen dira diruz laguntzeko modukoak ez diren instalazioak.

b) Elementu pribatiboetan egindakoak:

1.b.1) Energia eraginkortasuna eta isolamendu akustikoa: Kanpoko arotz lanak. Ezarri beharreko leiho berriak (beirak eta arotz lanak), hain zuzen, aireko zaratari aurre egiteko gutxienez 30 dB(A)-ko isolatze akustikoa eduki beharko du. Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), eta gehienez ere, 2.000 €.

1.b.2) Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat eta 65 urtetik gorakoentzat, etxebizitza egokitzea (komuna, igarotzeko ateak; argi, ur eta gas sentsoreak). Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), eta gehienez ere 6.000 €.

c) Etxebizitza hutsen alokairua sustatzea, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak bere Alokabide programan egindako bitartekaritza lanaren bidez merkatura atera ahal izateko.

1.c.1) Etxe bizitza hutsak egokitzeko lanak, gerora alokairuan jarri ahal izateko. Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), gehienez ere 3.000 €.

2. a) eta b) ataletan xedatutako laguntzak bateragarriak izango dira. Aldiz, c) atalean xedatutako laguntzak, a) atalekoekin bateragarriak izango dira, baina b) atalekoekin bateraezinak.

3. Diru laguntzaren kopurua zehazteko xedearekin, diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira lanak egikaritzean izandako gastuak eta ordainsari teknikoek sortutako gastuak; salbuespenak izango dira, haatik, zergak, tasak eta beste zeinahi ordain.

4. Ezingo diete lanei ekin laguntzak emateko behin-behineko esleipena ebatzi arte. Lehenago hasiz gero, indarrik gabe geratuko da laguntza eskabidea.

*7. artikulua. Onuradunak.*

1. Diru laguntzen onuradunak izan daitezke diru laguntza ildo bakoitzarentzat jarraian zehaztutakoak, baldin eta diruz laguntzeko moduko jardunen ordainketan parte hartzen badute, baldin eta diru laguntzei buruzko arauetan debeku egoeraren batean ez badaude:

a) Elementu komunetan egindako lanetan, zuzeneko onuradunak izango dira, hain justu, legez eratutako Jabekideen Erkidegoak. Honako atal honetan xedatutako laguntzen izapideak, bestalde, Jabekideen Erkidegoaren ordezkariak egin beharko ditu; betiere, Jabetza Horizontalaren Legean xedatutako modu eta baldintzetan.

Eraikina jabe bakarrarena bada, onuraduna izan daiteke soil-soilik baldin eta pertsona fisikoa bada; eta era horretako lanak diruz lagunduko dira, soilik etxebizitzen % 80 gutxienez beteta baldin badaude eskaera egiten den unean.

b) Elementu pribatiboetan egindako lanetan, jabeak, gozatzaileak edo errentariak diren eskatzaileak soilik izan daitezke onuradun; edo bestela, lanak egin beharreko etxe bizitzari begira bestelako tituluren bat duten pertsonak. Nolanahi ere, pertsona fisikoak izan beharko dute, eta etxe bizitza horrek euren bizitegi eta ohiko egoitza izan beharko du. Egoera hori, hain zuzen, udal erroldaren bitartez egiaztatu ahal izango dute. Azkenik, pertsona horien urteko diru sarrera haztatuak ezingo du, inondik inora, 35.000 eurotik gorakoa izan.

c) Etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko lanetan, onuraduna izango da lanak egin beharreko etxe bizitzaren jabea, gozamenduna, pertsona fisikoa.

nable, excluido IVA, hasta un máximo de 10.000 €. Se excluyen, en todo caso, las instalaciones, que no son subvencionables.

b) Las relativas a elementos privativos:

1.b.1) Eficiencia energética y aislamiento acústico: Carpinterías exteriores. La nueva ventana a instalar en su conjunto, vidrios y carpinterías, deberá de obtener un aislamiento acústico al ruido aéreo mínimo de 30 dB(A). Se subvencionará el 20 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 2.000 €.

1.b.2) Adecuación de la vivienda para personas con movilidad reducida o mayores de 65 años. (Baño, puertas paso, sensores de luz, agua y gas). Se subvencionará el 20 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 6.000 €.

c) Fomento de alquiler de viviendas vacías para su salida al mercado mediante la intermediación de la Entidad Publica Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza en el programa Alokabide, propio de dicha Entidad:

1.c.1) Obras que permitan la adecuación de viviendas vacías para su posterior alquiler. Se subvencionará el 20 % del gasto subvencionable, excluido IVA, hasta un máximo de 3.000 €.

2. Las ayudas contempladas en los apartados a) y b) serán compatibles entre sí. Las ayudas contempladas en el apartado c) son compatibles con las del apartado a), y son incompatibles con las del apartado b).

3. Será gasto subvencionable al objeto de determinar el importe de la subvención, los gastos de ejecución de las obras y los de honorarios técnicos, exceptuando impuestos, tasas y cualquier otro tributo.

4. Las obras no podrán ser iniciadas hasta que se resuelva la concesión provisional de ayudas. Su iniciación con anterioridad hará decaer la solicitud de subvención.

*Artículo 7. Personas o comunidades de propietarios/as beneficiarias.*

1. Podrán ser personas o comunidades de propietarios/as beneficiarias de las subvenciones los que se indican, seguidamente, para cada línea subvencional, que participen en el pago de las actuaciones subvencionables, siempre y cuando no concurra en ellos situación de prohibición en la normativa de subvenciones:

a) En las obras de elementos comunes serán beneficiarias directas las comunidades de propietarios/as legalmente constituidos. La tramitación de las ayudas contempladas en el presente apartado deberá efectuarse por quien represente a la Comunidad de Propietarios/as en los términos establecidos en la Ley sobre Propiedad Horizontal.

En el caso de pertenecer un edificio a un/a único/a propietario/a, sólo podrá ser beneficiario/a si es una persona física y sólo se subvencionará este tipo de obras si al menos el 80 % de las viviendas están ocupadas en el momento de la solicitud.

b) En las obras de elementos privativos serán personas beneficiarios/as as solicitantes que sean propietarias, usufructuarias o arrendatarias o que ostenten cualquier otro título de disfrute sobre la vivienda objeto de las obras, en todo caso, persona física, que constituya su residencia y domicilio habitual, circunstancia acreditada a través del padrón municipal, y cuyos ingresos anuales ponderados no superen en ningún caso, los 35.000 euros anuales.

c) En las obras para fomento del alquiler de viviendas vacías será persona beneficiaria la propietaria, usufructuaria, persona física, de la vivienda objeto de las obras.

EK\CV GAO-I-2018-04829

Laguntza horien onuradunek konpromisoa hartu beharko dute zaharberritutako etxebizitza Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Alokabide programaren bitartez alokairuan jartzeko. Diru laguntza jasotzen duen etxebizitzak gutxienez 5 urte eman beharko ditu Alokabide programan. Bi etxebizitzatik gorako ondasuna eta/edo urtean 50.000 €-tik gorako diru sarrerak izanez gero, ezin izango da laguntza hau eskuratu.

2. Ezingo zaie diru laguntzarik eman Donostiako Udalarekin edo Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zatikatuta edo horien egikaritzea etenda.

3. Diru laguntza bat eskatu eta behin-behinekoz onartu ondoren, ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste diru laguntzarik eskatu, hura behin-behinekoz emateko ebazpenaren datatik bost urte igaro arte.

*8. artikulua. Diru sarreretarako baldintzak.*

1. Elementu pribatiboak zaharberritzeko diru laguntzak emateko, kontuan izango dira diru sarrerak; hain justu, honako irizpide hauen arabera:

a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitorpena aurkeztera behartuta dauden pertsonei eta behartuta ez egon arren hala egin dutenei begira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko dago(z)kion Zerga aitorpenaren/aitorpenen zerga oinarriak (orokorra eta aurrezkiarena) zenbatuko dira, gehi lan errendimenduei aplikatutako hobariak, eta hala badagokio, salbuetsitako errentak, hurrengo atalean xedatutakoaren arabera zenbatutakoak.

b) Errenta aitorpena aurkeztera behartuta ez dauden pertsonei begira, berriz, honako diru sarrerak zenbatuko dira:

— Lan errendimenduei eta langabezia sariari dagokienean, arrazoi guztiengatik egiaztatutako diru sarrera gordinen % 95.

— Pentsioei eta langabeziagatiko diru laguntzei dagokienean, eta baita zergatik salbuetsitako dietei dagokienean ere, arrazoi guztiengatik egiaztatutako diru sarrera gordinen % 100.

c) Era berean, pentsio konpentsatzaileak kontuan hartuko dira, nola jasotzen duen ezkontide ohiaren diru sarrera moduan, hala ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiaren diru sarreren gutxitze moduan; betiere, pentsio konpentsatzailea ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiak dokumentu bidez egiaztatzen badu modu eragingarrian gauzatu duela ordainketa.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitorpena aurkeztera behartuta ez dauden pertsonei dagokienean, berriz, lan errendimenduetatik datozen diru sarrerak egiaztatze aldera, PFEZ atxikitzeengatiko egiaztagiri ofizialak baino ez dira kontuan hartuko.

2. Lortutako diru sarrerak haztatu egingo dira, 2008ko martxoaren 4an babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruz onartutako 39/2008 Dekretuaren arabera, diru sarreren hartzaile kopuruari eta familia unitateko kide kopuruari erreparatuta, eta honako formularen arabera, diru sarrerak dagozkien koefizienteekin biderkatuta:

Diru sarrera haztatuak (DH) = Diru sarrera zenbakarriak x N x A.

N = Kide kopuruaren koefizientea.

A = Hartzaile kopuruaren koefizientea.

Pertsona batek diru sarreren ekarpena egiten duela, alegia, hartzailea dela esaten da, baldin eta familiaren guztizko diru sarreren % 20ko ekarpena egiten badu, gutxienez.

Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán comprometerse a destinar la vivienda rehabilitada, al alquiler a través del Programa Alokabide propio de la Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza. La vivienda objeto de la subvención, deberá permanecer durante un plazo mínimo de 5 años en el Programa Alokabide. No se podrá optar a esta ayuda si se tiene un patrimonio superior a 2 viviendas y/o ingresos superiores a 50.000 euros brutos anuales.

2. No podrán concederse subvenciones a quienes se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de San Sebastián o con la Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza, hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

3. Una vez solicitada y concedida provisionalmente una subvención, no se podrá volver a solicitar nueva subvención por la misma obra subvencionada hasta transcurridos cinco años de la fecha de Resolución de concesión provisional de aquélla.

*Artículo 8. Requisitos de ingresos.*

1. Para la concesión de las subvenciones en el caso de rehabilitación de elementos privativos se tendrán en cuenta los ingresos atendiendo a los siguientes criterios:

a) Para personas con obligación de presentar declaración del impuesto sobre la renta de las personas físicas y aquéllas que sin tener obligación la hayan realizado, se computarán las bases imponibles, general y de ahorro, de la declaración o declaraciones del impuesto sobre la renta de las personas físicas, correspondientes, más las bonificaciones aplicadas a los rendimientos de trabajo y, en su caso, las posibles rentas exentas, computadas conforme a lo establecido en el apartado siguiente.

b) En el supuesto de personas que no tengan obligación de presentar la declaración del impuesto sobre la renta se computarán los siguientes ingresos:

— En el caso de rendimientos de trabajo y de prestación de desempleo, el 95 % de los ingresos brutos acreditados por todos los conceptos.

— En el supuesto de pensiones y de subsidios de desempleo, así como dietas exceptuadas de gravamen, el 100 % de los ingresos brutos acreditados por todos los conceptos.

c) Asimismo, las pensiones compensatorias serán tenidas en cuenta tanto como ingreso de la persona ex cónyuge que la perciba como minoración de ingresos de la persona ex cónyuge obligada a abonarla, siempre y cuando el ex cónyuge obligado/a a abonar la pensión compensatoria pruebe documentalmente que la ha satisfecho de forma efectiva.

d) En el supuesto de personas no obligadas a presentar declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, a efectos de acreditación de los ingresos procedentes de rendimientos de trabajo, se tomarán en cuenta únicamente los certificados oficiales por retenciones del IRPF.

2. Los ingresos obtenidos se ponderarán, de conformidad al Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo del Gobierno Vasco, atendiendo al número de perceptores/as de ingresos y al número de miembros de la unidad familiar, multiplicando los ingresos por los coeficientes que correspondan, según la siguiente fórmula:

Ingresos ponderados (IP) = Ingresos computables x N x A.

N= Coeficiente n.º de miembros/miembras.

A= Coeficiente n.º de perceptores/perceptoras.

Se considerará que una persona aporta ingresos, es decir, es perceptor/a, cuando aporta al menos 20 % del total de los ingresos familiares.

EK\CV GAO-I-2018-04829

— N, kide kopuruaren koefizientea A, hartzaile kopuruaren koefizientea.

Kide 1: 1,00. Hartzaile 1: 1,00.

2 kide: 0,95. 2 hartzaile: 0,90.

3 kide: 0,90. 3 hartzaile edo gehiago: 0,85.

4 kide: 0,85.

5 kide: 0,75.

6 kide: 0,65.

7 kide: 0,55.

7 kide baino gehiago: 0,50.

Kontuan hartzeko diru sarrerak, hain zuzen, azken zerga ekitaldikoak izango dira.

*9. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Honako ordenantza honetako xede diren diru laguntzen onuradunen betebeharrak, hain justu, hauek izango dira:

a) Helburua betetzea, proiektua egikaritzea, jarduera gauzatzea edo diru laguntza emateko oinarrian izan den jarrera har zea.

b) Erakunde Laguntzailearen aurrean betekizunak eta baldintzak betetzen dituela, jarduera gauza zen dela eta diru laguntzaz gozatzeko aukera eman dion helburua betetzen dela justifikatzea.

c) Etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko diru laguntzen kasuan, etxebizitza hori Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Alokabide programaren bitartez alokairuan jartzea.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana Erakunde Laguntzaileari jakinaraztea. Jakinarazpen hori, hain zuzen, funtsak jasoko direla jakin bezain laster, eta kasu guztietan, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik bidali beharko da.

e) Behin-behineko emakidaren ebazpen proposamena eta behin betiko emakidaren ebazpena eman aurretik egiaztatzea bere zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, honako ordenantza honen 10.3. artikuluan xedatutako modu eta baldintzetan.

f) Jasotako funtsen erabileraren justifikazioko dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, baldin eta egiaztatze eta kontrol jardunen premia izan badezakete.

g) Jasotako funtsak itzultzea, baldin Diru laguntzen Lege Orokorreko (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) 37. artikuluan ezarritako egoeraren bat gertatzen bada.

III. KAPITULUA

LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

*10. artikulua. Diru laguntza eskaerak.*

1. Urtean-urtean, aurrekontuak onartu eta Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak ebatzi ondoren, diru laguntzak emateko deialdia izango da. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da laguntza deialdi hori, eta, hartan, zehaztuta joango dira eskabideak aurkezteko epea, aurrekontuan izendatutako kantitatea eta, 6.1.a artikuluan xedaturikorako, lehentasunez birgaitu beharrekotzat jotako eraikinak edo lehentasunez birgaitu beharreko aldeetan daudenak, azken hauek udalak urtean-urtean zehaztu ditzakeelarik.

— N, coeficiente n.º de miembros/miembras A, coeficiente n.º de perceptores/perceptoras.

1 miembro/a: 1,00. 1 perceptor/a: 1,00.

2 miembros/as: 0,95. 2 perceptores/as: 0,90.

3 miembros/as: 0,90. 3 perceptores/as o más: 0,85.

4 miembros/as: 0,85.

5 miembros/as: 0,75.

6 miembros/as: 0,65.

7 miembros/as: 0,55.

Mas de 7 miembros/as: 0,50.

Los ingresos a tener en cuenta serán los del último ejercicio fiscal vencido.

*Artículo 9. Obligaciones de las personas o comunidades de propietarios/as beneficiarias.*

Serán de obligaciones de las personas o comunidades de propietarios/as beneficiarias de las subvenciones objeto de la presente Ordenanza las siguientes:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante la Entidad colaboradora el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

c) En el caso de las subvenciones para el fomento del alquiler de vivienda vacía, destinar dicha vivienda al alquiler mediante el programa Alokabide, propio de la Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza.

d) Comunicar a la Entidad Colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto se conozca y, en todos caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

e) Acreditar con anterioridad a dictarse las propuestas de resolución de concesión provisional y a la resolución de concesión definitiva que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación Municipal) y frente a la Seguridad Social en los términos establecidos en el artículo 10.3. de esta Ordenanza.

f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos percibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

g) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones.

CAPÍTULO III

PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN

*Artículo 10. Solicitudes de subvención.*

1. Anualmente, tras la aprobación de los presupuestos y mediante Resolución del Concejal delegado de Urbanismo sostenible, vivienda y proyectos de ciudad, se procederá a la convocatoria para la concesión de ayudas. Esta convocatoria de subvenciones se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y deberá constar en la misma el plazo de presentación de solicitudes, el importe de los créditos consignados, y, a los efectos de los dispuesto en el art. 6.1.a), los edificios declarados como de necesidad preferente de rehabilitación o comprendidos dentro de las zonas de necesidad preferente de rehabilitación, que el Ayuntamiento en su caso pueda fijar anualmente.

EK\CV GAO-I-2018-04829

2. Diru laguntzen eskaerak dagokien obra baimenarekin edo, hala badagokio, horrelakorik ez dela behar egiaztatzen duen dokumentuarekin batera obrak hasi aurretik aurkeztu beharko dira, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Erregistroan.

3. Diru laguntza eskaerak, hain zuzen, Erakunde Laguntzaileak, Donostiako Etxegintzak, emandako eredu normalizatuak beteta aurkeztuko dituzte edo urriaren 1eko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako prozeduren bidez, jarraian adieraziko ditugun dokumentuekin batera, non eta eskatutako dokumentuak ez dauden Donostiako Udalaren edo haren Erakunde Laguntzailearen esku diru laguntza horien kudeaketa gauzatzeko. Hala bada, eskatzaileak, lehen aipaturiko Legeko 28.3 artikuluko 2. paragrafoan xedaturikoaren arabera, adierazi beharko du zer udal organo edo bulegotan aurkeztu edo eman ziren eta noiz.

4. Diru laguntzen Lege Orokorraren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4. artikuluan xedatutakoarekin bat eginda, eskaera aurkeztean Udalak eta bere Erakunde Laguntzaileak baimena izango dute eskumeneko Administrazioei eskatzeko eta ofizioz eskuratzeko diru laguntzen onuradunek euren zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten egiaztagiriak eta Donostiako Udalarekin edo Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean ez daudela dioten egiaztagiriak.

5. Hauek dira, oro har, aurkeztu behar diren dokumentuak:

5.a) Eraikinen Azterketa Teknikoaren txostena, elementu komunen lanetarako, aplikagarria den araudian ezarritako eskakizunen baitan.

5.b) Onuradun izateko dauden debekuetan, Diru laguntzen Lege Orokorraren 13.2. artikuluak aipatzen dituenetan, sartuta ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

5.c) Helburu bererako diruz lagundutakoaren kostu erreala gainditzeko moduko bestelako laguntza batzuk dagoeneko jaso ez dituela edo jasoko ez dituela egiaztatzen duen adierazpena. Beste diru laguntzaren bat eskatuz gero (betiere, proiektuaren kostu erreala gainditu gabe), eskatutako laguntzen zerrendari buruzko erantzukizunezko adierazpena, kopurua espresuki adierazita duela; era berean, eskaera zer organo edo erakunderi aurkeztu zaion, diru laguntza behin betiko emateko ebazpen proposamena aldez aurretik egiaztatzeko beharra indarrean egoteaz gain.

5.d) Instrukzio organoari zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean ez dagoela egiaztatzeko egiaztagiriak biltzeko baimena ukatzea. Baimena ukatuz gero, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

6. Hauek dira, bestalde, modu espezifikoan aurkeztu behar diren dokumentuak:

6.1. Elementu komunetan egin beharreko lanetarako:

6.1.a) Diru laguntzaren helburu diren lanei dagozkien lanetarako udal lizentzia, edo, hala badagokio, horrelakorik ez dela behar egiaztatzen duen dokumentua.

6.1.b) Zaharberritu beharreko elementuen kolorezko argazkiak.

6.1.c) Hala badagokio, proiektua.

6.1.d) Egin beharreko lanei dagozkien gremioen aurrekontu zehaztuak eta teknikarien ordainsarienak.

2. Las solicitudes de subvención deberán presentarse acompañadas de su correspondiente licencia de obras, o en su caso del documento que acredite la innecesariedad de la misma y antes del inicio de las obras ante el registro de la Entidad Pública Empresarial de Vivienda Donostiako Etxegintza.

